


# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 267. alea - 2021eko azaroa




**XABI OSA**  
Ezinezkoei  
erronka egin  
dien gaztea



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**EUSKAL OKELA**  
KARNE DE CALIDAD DEL PAS VASCO  
EUSKO LABEL



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa



**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - beheka | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)



**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Arakistain plaza, 2 beheka - DEBA  
Tel.: 943 19 22 63  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Calbeton**



JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**


Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plafer konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

✉ Hondartza kalea, 3-4 beheka - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

🌐 [sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

Maitena Arrizabalaga Deba  
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

**maitena**

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# AURKIBIDEA

6

## KOLABORAZIOA

Deban Kalean Kantuz taldea protagonista  
*Herrikoak Berriketan* atalean



8

## ALBISTEAK

Amaiak Bat-en ekitaldiak, Amagoia Arrieta Europako Txapelketara...



10

## ELKARRIZKETA

Xabi Osa ezinezkoen erronka egin dien gaztearekin  
*Berriketan*



12

## ERREPORTAJEA

"Aurten baDA!" Debabarrenetik Durangoko Azokara (DKTren erreportajea)



15

## ALBISTEA

"Euskeraz bagera" egitaraua egingo da abenduan, hizkuntza ardatz



## BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

## ARGITARATZAILEA



## LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saliak  
(Hizkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzioa

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

**ISSN** 2171-7656

## OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

**ME ENDAÑETA**  
muebles altzariak



Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria 3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)

[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Miquel Saumell gogoan

Azaroan urtebete egingo dugu Miquel Saumell joan zitzai-gula, eta zomorro malapartatuak ez digu, orain artean, pulamentuzko omen publikorik egiten utzi.

Hau dela-eta, azaroko azken asteburuan Miquelen beraren artelanekin atondutako erakusketa ikusteko aukera izango da Debako Kultur Elkartean, azaroaren 27an (12:00-14:00 / 18:00-20:30) eta 28an (12:00-14:00 / 17:00-18:30), hain justu. Era berean, igande eguerdian (hilaren 28an), musika emanaldia eskainiko da Miquelen gorazarrez, haren taldekide izandakoen parte-hartzearekin. Emanaldia 13:00etan izango da, Kultur Elkartean bertan.

*Miquelen senide eta lagunak*



## Bost urte, hemendik aurrera zer?

Irailaren 2an bost urte bete ziren Debasket Saskibalo Kluba bere ibilbidea hasi zuenetik. Urte hauetan kluba martxan jartzea lortu dugula esan dezakegu, gainera hainbat lorpen handi ere izan ditugu: lehen taldea Gipuzkoako lehen mailara igotzea, saski eskolak martxan jarritzea, harrobiko katea erabat osatzea...

Baina dena ez da polita izan, pandemiak eta eguneroko inertzien kluba

ahultzea eragin dute. Debasket indartze-ko eta etorkizuna elkarrekin irudikatu eta marrazteko ordua iritsi da, hau da, Debasketen oraingo eta etorkizuneko proiektua egiteko ordua heldu zaigu. Denon indarrak beharrezko izango dira Deban, eta inguruko herrietan, saskibaloiak iraun dezan.

Horregatik, deia luzatzen dizuegu denoi, daukagun erronka honetan parte

hartu dezazuen, guztion ekarpen eta indarrarekin proiektu indartsu bat egingo dugulako!

Proiektuaren inguruan hitz egin eta eztabaidatzeko bilera antolatu dugu azaroaren 27an, larunbata, 11:00etan, Agirre jauregiko Ispiluen gelan.

Denon artean egingo dugu! Bat, bi, hiru Debasket!

*Debasket Saskibalo Kluba*

**BOHÈM**  
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA  
T 608 135 775  
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f @

**ARENA BAR**

Iturkale 2 behe - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | [www.janiretamaitane.com](http://www.janiretamaitane.com)

**Zumardi**  
pentsioa

Tel.: 688 800 619  
[info@pensionzumardi.com](mailto:info@pensionzumardi.com)  
[www.pensionzumardi.com](http://www.pensionzumardi.com)

f @

**ORAIN**  
ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

**LABATAI**  
taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
06:00ETATIK AURRERA  
PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
ETA PLATER KONBINATUAK,  
EGUN OSOAN ZEHAH

## Berde guztiak ez dira basoak



### Deba eta Itziar inguruko mendietako egoera

Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoan dugun basogintzako ereduak zeresana eman du gure gizartean. Izan ere, gure lurraldeko mendien itxura zeharo ari da aldatzen, eta erritmo azkarrean.

Intsignis pinuaren landaketei eragin zien banda marroiaren gaixotasunak sortu zuen krisiaren ondoren, eukalipto landatzearen mehatxua begien aurrean daukagu; basogintzari dagokionez oso inflexio-puntu kezkarria.

Hori horrela, gure herriaren inguruan (Andutz, Lastur, Endoia edota Mardari auzoetan) egin berri diren

eukalipto-landaketen bitartez, espezie horrek lehen hartzen zuen azalera hirukoiztu egin dela jakin dugu.

Gainera, kontuan hartuta Debako baso autoktonoek hartzen duten azalera ez dela % 8ra iristen, zerbait egiteko garaia dela uste dugu.

### Deban badugu beste arazo bat

Hala eta guztiz ere, badago eukaliptoek baino gehiago kezkatzen gaituen beste arazo bat, azken urteotan gure herrian garatzen ari den hirigintza eredu, hain zuzen ere. Izan ere, Elizburu, Amillaga eta Osioko plan urbanistikoek XX. mendeko hirigintzara itzuli gaituzte (Itziariko industrialdea gogoan), herri inguruko landa eremua okupatuz eta ingurune naturala suntsituz. Betirako galduko dira Debako paisaia

eta txoko natural batzuk. Herriko gerriko berdea ezabatzeko ahaleginek Amillaga-Elizburu dute abiapuntua eta, gelditzen ez bada, Osio izango dute helmuga. Herrietako eraztun berdeek eta herri barruko korredoreek (zumardia) argi dago hirigintzako negozioak mugatzen dituztela.

### Bertako basoen alde

Testuinguru honetan eta kezka horrek bultzatuta, bertako basoen alde egonik egungo basogintza eredu traketts horri alternatiba bilatu nahi duten gu bezalako beste hainbat talderekin elkartu gara, eta Baso Biziak plataforma sortu.

Berde guztiak ez dira basoak, ezta garapen guztiak jasangarriak ere.

*Debanatura Ingurumen Heziketa*

## Karmeni esker onez

Eskerrik asko, Karmen:

Bigarren ikastaroa bukatu berri dugu eta eskerrak ematea baino ez zaigu bururatzen. Eskerrik asko horrelako aukerak eskaintzeagatik, mila esker

Goikola landetxea, zure etxe eder hori eta bere ingurua guri zabaltzeagatik. Zuri esker estanpazio botanikoa zer den eta nola egiten den ikasi dugu Cari eta Nando Callejoren eskutik, irakasle bikai-

nak biak. Eta mila esker zaren emakume aparta izateagatik eta natura eta artisautzarekiko dituzun pasio bereziak guri hurbiltzeagatik.

*Ainara Sedano eta Arantza Iriondo*

## Labezomorroak

Bada izaki bizidun bat ia urte guztian gure artean, elkarren aldamenean, ahalik eta traba gutxien egiten bizitzen saiatzen dena. Denok ditugu ezagun, gertu, eta aldamenean pausatzen ez diren bitartean ez digute gehiegi molestatzen. Urte sasoiaren arabera, gehiago edo gutxiago azaltzen dira. Udaberrian, eguraldia epeltzen hasten denean, zuhaitzetan hosto berriak ernetzen hasten direnean, kolore biziz agertzen zaizkigu banaka, binaka, taldetxotan... Paisaiaren parte bihurtzen dira.

Zenbaitek umore onarekin, filosofiarekin hartzen dugu euren presentzia. Beste batzuk, ordea, gogaitu egiten dira. Egia esan, errepideak koloreztatzen dituzte udaberrian azaleratzen diren labezomorro koloretsu eta alai horiek. Alta, urriko eguraldi aldaketarekin, ostadarraren koloreak iluntzen joaten dira, goibeltzen eguraldia bezala; errepidea beltzez jantzitako izakiz betetzen da orduan.


Bai, txirindulariez ari naiz, bai. Eguraldi onarekin, kolore alai jantzirik joaten dira, tropeltxo koloretsuak osatuz. Bizitza sortuz bidezidor guztietan. Aldiz, udazken-neguko hotza hasten denean, eguna iluntzearekin bat, euren koloreak ere iluntzen dira eta labezomorro bilakatzen; ingurunearekin bat eginenez, zoritxarrez.

Gehiegi hurbildu arte ez gara oharren beltzez jantzitako lagun bat dugula aurrean; nahi baino beranduago ikusten dugu txirindularia, eta susto galanta hartzen dugu. Norbere buruari galdezka jartzen gara orduan: zergatik ez dituzte udako kolore alai eta ikusgarri horiek neguko iluntasunean ere erabiltzen? Zer hoberik kolorez janztea baino?



**EIDER ZULAIKA**

iritzia



## HERRIKOAK BERRIKETAN

### DEBAN KALEAN KANTUZ

#### Kalean Kantuz-en sorrera

San Roke jaietako Marinela Egunean Kardantxulo taldeak antolatuta, kalekale euskal kantak abesten irtetzen da urtero herritar talde bat. Garai hartan, lauzpabost lagun gitarrazale astero biltzen ginen Osioko gela batean eta batez ere euskal kantak jotzen genituen.

2010ean abeslari ibiltzen ziren horietako batzuek proposamena egin ziguten, Euskal Herriko herri askotan egiten den bezala, urtean zehar kantuan irteteko.

Elkartzeko proposamena egin genien guk, elkarrekin entseatzekoa eta, horrela, gero, jende gehiago bilduko zitzaigun. Horrelaxe hasi ginen.

Laster, Donostiara joan ginen bertako Kalean Kantuz taldekoek antolatutako ekintza batean parte hartuz. Hango talde handi eta indartsuaren giroa ikusita oso animatuta itzuli ginen. Gure saioekin aurrera jarraitu genuen eta hilean behin irteteari ekin genion.

Osiotik Musika Eskolako gela batera pasa ginen gure entseguak egitera. Orduan, gitarrez gain soinuak eta perkusioa ere gehitu genizkion taldeari.

2011n izan zen lehen saio handia eta Euskal Jaiko bazkari herrikoian kantatuz jendea abesten jarri genuen.

#### Helburuak eta txangoak

Taldeak honako helburuak ditu: euskal kantak mantentzea, euskararen erabilera bultzatu eta indartzea, eta helburu berberak dituzten herritarrak batzea talde baten giroan.

Talde-giro horri eusteko, Donostiara bezala, beste herri batzuetara ere egin izan ditugu txangoak, eta bertako ekin-

tzetan parte hartu. Normalean larunbat goizez izaten dira irteera horiek; batzuetan, ordea, egun osoan joaten gara. Horrela, Baiona, Elgoibar, Eibar, Tolosa, Hondarribia eta abarren... izan gara.

2019an Biarritzeko Arroka Kantuz taldeak, 40 urte bete zituenez, bertara gonbidatu gintuen. Oso ondo antolatutako eguna izan zen eta ederki asko pasagenuen taldekoak.



#### Gure jarduerak

Normalean hilero irten ohi gara, hileko hirugarren larunbatean, eta horrez gain egun berezietan ere bai, hala nola Euskal Jaian, Santa Zuzila Egunean (azaroak 22), Euskararen Egunean (abenduak 3), Emakume Langileen Egunean (martxoak 8), Korrikan, Debarren Egunean...

Beti prest egoten gara deitzen digutenean abestera joateko.

Urtero irteera bereziren bat ere egiten dugu eta bestelako batzuk ere bai. Adibidez, akordedun 150 abestiz osatutako liburu bat argitaratu genuen. Lehen edizioa berehala agortu eta bigarrena atera genuen abesti gehiago gehituta; guztira 200 bat ale izan ziren.

Zapi batzuk ere atera genituen gure logoarekin; Debako irteeretan jantzen ditugu eta, bereziki, beste herrietara joatean.

Egin dugun ekintzarik bereziena 2019ko urrian Deban antolatutako Topaketa izan da. Inguruko herrietako taldeak gonbidatu genituen Debara etortzera. Gurekin kalekale abestu eta ondoren frontoian bazkari herrikoia eta erromeria txiki bat antolatu genituen.

Talde asko etorri ziren, 300 bat pertsona. Dena oso ondo joan zen, eguraldiak askorik lagundu ez bazigun ere.

Inauterietan, dantzari eta musikari batzuekin batera kaldereroz irten ginen eta Deban lehen aldiz kalderero-abestiak euskaraz kantatu genituen. Hori ere oso ekintza positibo eta polita izan zen.

Pandemia garaian isilik egon gara halabeharrez. Hala ere, flyscharen inguruan ekintza txiki bat antolatu zen kaian eta guk etorri zen txalupari ongietorria egin genion Benito Lertxundiren "Itsasoari begira" kantua abestuz, musuko eta guzti.

#### Gure funtzionamendua

Astelehenero iluntzeko 19:00etan entseguak egiten dugu abesti berriak ikasi eta zaharrak hobetzen joateko. Gure taldea edonorentzako dago irekita (emakume zein gizon; 0-100 urte bitarteko).

Anima zaitetz gure taldera etortzera, ongi etorria izango zara eta ziur ondo pasako duzula. Abesteko gogoia eta umore ona besterik ez dugu eskatzen!

Horrez gain, abestea gustuko duen oro animatu nahi genuke irteten garenean inguratu eta gurekin abestera.

## Aitor Oñederraren “Ur azpian lore” nazioarteko bi jaialditarako sailkatua



Urriaren amaieran jakin genuen Aitor Oñederra animaziozko film-sortzailearen *Ur Azpian Lore* ZINEBIren 63. edizioaren nazioarteko sailean estreinatuko zela. Laburmetraien nazioarteko lehiaketa da

ZINEBI, eta atal ofizialean lehiatuko da Oñederraren lana. Azkuna Auditorioan (Golem Bilbao) izan da estreinaldia, azaroaren 18an.

Bestalde, azaroaren hasieran, *Ur azpian lore* Animario de Matadero de Madrid jaialdiaren III. edizioeko nazioarteko sailerako aukeratua izan da. Hau ere laburmetraien nazioarteko lehiaketa da eta azaroaren 13 eta 14an izan zen.

Honako hau da filmaren sinopsia: ezin zion inori kontatu. Bakarrik zegoen.

## Urrian egin da azkenean bi urtez behin egin izan den folklore jaialdia



Gure Kai Euskal Dantzari Taldeak bi urtetik behin antolatzen duen uztaileko folklore jaialdia aurrera eramatea ezinezkoa izan da aurten, COVID-19 pandemiaren ondorioz. Horren ordez, pasa den urriaren 23an, trokeo dantzen jaialdia eskaintzeko aukera izan zuten, herriko kultura bultzatu nahian. Haiekin batera Eibarko Kezka Dantza Taldea, Portugaleteko Elai Alai, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldea eta Deba Musikal musika eta dantza eskolako ikasleak aritu ziren oholtza gainean.

Jaialdia ikusteko gonbidapen guztiak agortu ziren, eta giro ederra sortu zen karpan. Gure Kaiek eskerrak helarazi nahi dizkie jaialdira hurbildu ziren guztiei, baita saioa aurrera eramatea posible egin zutenei ere.

## Bluesik onena, azaroan Debabarrenean


Azaroaren 19tik 28ra bitartean, Blues Hotsak jaialdia egingo da Soraluzen. AEB, Britainia Handia, Espainia, Katalunia eta Euskal Herriko musikariek joko dute.

Blues Hotsak jaialdiaren hirugarren edizioa izango da aurtengoa eta Ubane Uzin antolatzailearen esanetan, “blues jaialdia kontsolidatu egin da eta penintsulako blues jaialdi nagusien agendan sartzea lortu dugu. Horri esker, orain atzeritik biran datozen musikariak eurak dira etorri nahi dutenak”.

Watermelon Slim da jaialdiko izen handi horietako bat. Ondoren datozenak

ere ez dira nolanhikoak: Izo Fitzroy, Koko Yein, *Eunice* (Nina Simonei eskainitako emanaldia) eta Niko Etxart. Soraluzeko musikariek ere emanaldia eskainiko dute.

Kontzertuez gain, beste diziplina batzuk ere izango dira jaialdian. Batetik, *Bluesaren zuzeneko mundua* izeneko erakusketa izango da ikusgai, Alex Rodriguezen argazkiekin osatua. Bestetik, Janis Joplinen bizitzari buruzko *Little girl blue* filma proiektatuko da. Sarrerak salgai daude Iratxo gozo-dendan, 10 euroan. Informazioa: [www.blueshotsak.eus](http://www.blueshotsak.eus) (943 751320/ [iraxosoraluze@gmail.com](mailto:iraxosoraluze@gmail.com)).



LANDER ARANBERRI

### Dagigun

Pandemiak, garapen teknologikoak, AEBen krisiak, larrialdi klimatikoak, hazkunderaren amaierak... aldaketa sakonean aurkitzen da mundua. Mundu zaharra agortzen ari zaigu, berriari heldu ezinik. Globalizazioak erabakiguneak multinazionalaletara zein goi-bilera ilunetara urrutzen dizkigu, eta dugun demokrazia apurra irentsi. Munstroen garaia dela esango zigun sardiniar politikari bikain batek.

Udalak, aldundiak... plan estrategikorik egin ezinda dabilta. Nola hitz egin etxebizitzaz, lanaz, energiaz superinstituzio eta transnazionalekin? Zer erabaki dezakegu hauteskundeetan? Ezkortasunak borondate askatzaileak irentsi ditu mundu zabalean zehar; emantzipazioaren eta bizitza hobea eta justuagoen aldarriak desagertu. Epe motzak jan gaitu; biziraupen hutsak.

A ala B egiteko ordua da (dolua edo damua dio Willisek): globalizazioaren erritmoei jarraiki, geratzen zaigun botere apurra entregatu, edo gure bizitzak, gure errealitateak, gure erritmo eta beharizetara egokitu. Hazi edo birsortu. Aurrenekoak oso ongi funtzionatzen du: botere zentralizatua, goitik beherakoa eta eragin-kortasunean oinarritua. *Voilà!* Bigarrenak, aldiz, gure oinarrizko beharretatik, utopiarik sinpleenetara itzultzea dakar: gogoetara, elkar entzuterara, eztabaidara; eguneroko bizitzara, funtsean. Ez da erabaki erraza: etengabeko *mili* baten parte izan, edo militantzia; hori da kontua (Hamletianoki).

Sardiniar hark, inteligentziaren ezkortasunaren aurrean, borondatearen baikotasuna botereetsuago dela zioen. Irakurle, zuk ere hala uste baduzu, zumardian aurkituko nauzu. Debarik onena debarron beharretara egokitzen den Deba dela sinetsita. Erabakiak herritarrok eta herritarrontzat hartuz; irisgarritasunaz, zaintzaz, kulturaz, ariketaz, dibertsioaz eztabaidatzen. Gurea den bastinuixa, are eta geureago egiten. Dagigun.

## Urteurreneko ekitaldiekin jarraitzen du Amaiak Bat-ek eta azaroan entrenatzaileak hartu dituzte gogoan

Amaiak Bat-ek hainbat gizatalderi bere omenalditxo egiteko baliatu nahi du 75. urtemuga. Horregatik, urteurrena ospatzen ari den honetan, gai bat hartuko du ardatz hilabete bakoitzean. Horrela, bada, abuztuan ekimena aurkeztu ostean, irailean bazkideak omendu zituzten. Urrian, kultura eta gizartea hartu zituzten ardatz eta kirol gaia zuten ikuskizunak izan ziren: Kukai dantza taldearen “Fair play” ikuskizuna, eta Zuhatz Gurrutxagaren “FutbolisTok” bakarriketa.

Azaroa entrenatzaileen omenezko hilabete izendatu dute taldekoek. Hori dela eta, guztira bi hitzaldi eta entrenatzaileen afaria izango dituzte hilabete honetan. Bi hitzaldiak Kepa Diez federazioko entrenatzaileen eskolako irakasle eta kirol



psikologian aditu denaren eskutik datoz. Lehenengoa, azaroaren 8an izan zen, Kultur Elkartean. “Kirol errendimenduari lotutako aldagai psikologikoak” izenburua izan zuen hitzaldia, eta, besteak beste, galdera honi erantzuten saiatu zen aditua: zer ekarriko liguke gure futbolariak gogoz eta buruz ondo prestatzeak? Gainera, entrenamenduetan erabilgarri diren tresnak eskuratu zituzkien Diez-ek bertaratutakoei. Azaroaren 22an izango da hurrengo hitzaldia, “Futbol praktikaren ondoriozko garapen pertsonal osoa” izenburupean eta, kasu honetan, helburua lortze aldera klubak eta gurasoek sinergikoki jokatzeko bidez arituko da aditua. Hilabeteko hirugarren ekitaldia azaroaren 13ko entrenatzaileen afaria izan zen. Amaiak Bat-eko gaur egungo eta lehenengo entrenatzaileak bildu ziren, 62 lagun guztira (goiko argazkian).

Abenduari begira, Euskararen Nazioarteko Eguna (abenduak 3) gogoan, euskara hartu dute hilabeteko gai ardatz eta, beraz, egun horretako ekitaldietan parte hartzeaz gain, Amaiak Bat-ek Udalarekin batera euskararen erabilera indartzeko landutako proiektua aurkeztuko dute, besteak beste.

### Ehundik gora parte hartzaile VIII. Manuel Mateos Memorialean



Azaroaren lehenengo asteburuan egin zen, eguraldia lagun izan zuelarik, VIII. Manuel Mateos lasterketa. 106 pertsonak hartu zuen parte bertan (21 emakume eta 85 gizon) eta debar zein itziartarrak ere izan ziren,

nola ez, tartean. Lehenengo postua David Garcia Gilek eskuratu zuen, 00:26:58 denborari esker; bigarrena, berriz, Unai Ibarra Gallardok lortu zuen, 00:27:09 denborarekin, eta, hirugarrena, Jokin Muñoz Olazabalek, 00:27:17 denborarekin.

Emakumeen sailkapenari dagokionez, berriz, lehenengo postuan Rebeca Mariño Torrado geratu zen 00:37:07 denborari esker, bigarren, Idoia Nogales Alberdi, 00:33:00 denborarekin, eta, azkenik, hirugarren, Nerea Etxeberria Lizaso, 00:33:32 denborarekin.

### Amagoia Arrieta bocciako Europako Txapelketan lehiatuko da azaroaren amaieran

Pandemia dela eta Tokioko Jokoetan parte hartu gabe geratu ostean, Amagoia Arrieta boccia jokalaria Paris 2024ra begira jarrita dago dagoeneko, ilusioa berrizturik. Aurrean daukan lehenengo proba azaroaren 22tik



30era Sevillan jokatu den Europako Txapelketa izango da, Garun-paralisia eta Hartutako Kalte Zerebrala duten Pertsonen Kirolen Espainiar Federazioak antolatuturik, Bocciako Nazioarteko Federazioarekin (BisFed) batera.

23 herrialdeko 134 jokalariz izango dira guztira hiriburua andaluziarrean eta ekitaldi horrek emango ditu hiru urte baino lehen Frantziako hiriburuan jokatu den hitzordu paralinpikora begira nazioarteko ranking-erako lehenengo puntuak.



## Hilaren 21ean abiatuko da A25aren harira antolatutako ekimen sorta

Bost ekimenek osatuko dute aurten Emakumeengako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako egitaraua.

Itziariko Burugorri eraikinak hartuko du lehen saioa, azaroaren 21ean (igandea), 18:00etan, helduentzako *Luze edo Motz* emanaldiarekin.

Hurrengo asteazkenean, azaroak 24, 18:30ean, Kultur Elkartean *Malen Etxea*. *Zaintzaren esklabu* dokumentala eta solasaldia izango dira.

Azaroaren 25ean, osteguna, 18:00etan Foruen Plazan Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako ohiko kontzentrazioa izango da.

Bestetik, hurrengo egunean, azaroak 26, ostirala, 17:00etan Debako Kontalariet emakumeenganako biolentziaren kontrako ipuin-kontaketa egingo dute Gaztetxean. Azkenik, egun berean, 19:00etan, "Beldur Barik topaketa 2021" Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa izango da Agirre Jauregian.

## Abenduan hasiko dira Amillagako hilerri zaharra husten

Hilerri zaharrean igaroko den azken azaroaren 1a izan da aurtengoa, itxi egingo baita. Abenduan hasiko da Artzabalgo hilerri berrirako lekualdatzea, eta, hortaz, Amillaga husten. Lekualdatzeari lotutako gaiei buruz hitz egiteko zerbitzua egongo da. Harremanetarako: 747 45 42 56 - 10:00-

17:00 (astelehenetik ostiralera) edo [amillagahilerria@gmail.com](mailto:amillagahilerria@gmail.com). Aurrez aurreko arreta pertsonalizatua jaso nahi izanez gero, berriz, Amillagako hilerrian bertan, azaroaren 30era arte izango da horretarako aukera (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 17:00etara). Beharrezkoa da aurrez hitzordua hartzea.

## Mahai-inguruak, Karst jaialdia eta tailerrak Dagigun partaidetza gunearen baitan

Kulturaz hitz egiten abiatu zituzten Dagigun partaidetza gunearen baitan antolatutako mahai-inguruak. Lehen saioa azaroaren 4an izan zen, Kultur Elkartean; bertan, Azpeitiko Kulturaz Kultur kooperatibako Aitor Bengoetxeak haien esperientziaren berri eman zuen, proiektuak gauzatzea posible dela erakutsiz. Kultur Elkarteko Lourdes Gonzalez eta Alex Turrillas atzera begiratu eta aurrera egiteko erronkaz aritu ziren saioan.

Hilaren 6an izan zen bigarren hitzordua, Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatutako "Karst jaialdia: harria eta herria" ekimenarekin. Egun osoko programa prestatu zen, tartean hitzaldiak, harri-jasotze eta harri-zulatzailerak erakustaldiak, merkatu txikia eta bi irteera gidatu eskainiz.

Azaroaren 11n, berriz, "Zaintzaren hirigintza, hirigintzaren erronkak" lelopean, mahaiaren bueltan aritu ziren Debako arkitekto aholkulari Saioa

Zuazubiskar, Debegesako Hirigintza eta Birgaitze arloaren arduradun Esther Zarrabeitia eta Donostiako Arkitektura Eskolako irakasle Ula Iruetagoiena.

Mahai-inguruen zikloa hilaren 18an amaitu da, Itziariko Burugorri landa ekonomiaz egindako saioarekin.

Hala ere, aipatutako saioen ondoren, azaroaren 20, 21, 27 eta 28an tailerrak egingo dira zumardian bertan. Horietako bat familia eta haurrekin egingo da.



REXU ARAKISTAIN

### Lehengo pasadizoak

- Garai batean, gizonezkoak gauez, etxerako bidean, beldurra uxatzeko txistua joz joaten ziren. Ba omen zegoen bat bi ahots (lodia eta fina) egiten zituena, bi pertsona zirela pentsarazteko.

- Baserrietan esaten zen ijito zuria zela okerrean: ijito beltza pasa eta gero auzokoak oilo bat edo beste beti sartzen zuen-eta zakura.

- Igande gauetan, kaleko mutila bazeen neska-laguntzen, erruki!, bidezidor estuenean lanabes puntazorrotzak gora begira ipintzen zituzten-eta baserrietako mutilek, eta gero harrika edo oihuka beldurtzen zituzten kanpotarrak, "neskalapur" ziren-eta baserriarrentzat.

- Oso baliagarri izaten ziren bitan banatutako atek; barrua aireztatzeke, abere edo baimen gabekorik ez sartzeko, edo neska-mutilak agurtzeko, atearen behealdea ireki gabe.

- Garai hartan, inguruko teilape batean, txerri-kaiola zeukaten. Goizalde batean, lagun talde batek zeharo mozkortuta zegoen laguna bertan utzi zuten atea ixita. Goizean goiz, kristoren garrasiak entzun ziren auzoan, nola zitekeen "txerri kaiolan piztia bezala egotea auzoko mutila!". Gurasoek belarrondoko ederrarekin bidali zuten ohera egun hartan semea.

- Jai arratsaldeetan tabernan mutilak telebistan futbola ikusten egoten ziren, eta neskak kalean jira eta buelta, gorroto genuen futbola. Garai berriekin, ordea, taberna batean mahaia libre lau eserlekurekin behin. Zer poz! Baina kafesnea hartzen ari ginela mutilek ikusi eta irainka hasi zitzaizkigun...

- Mojek, eskolan, "¡las rodillas juntas!" zioten. Bagenuen, ordea, lagun bat ezin zituena belaunak elkartu... Soka-saltoan ere gonari ezin behean eutsita ibiltzen ginen, eta soka hanka-tartean trabatzen zenetan... hura bai drama!

## XABI OSA CrossFit egokituko atleta

### “CrossFit-ak erakutsi dit lana eginez gero ez dagoela ezinezkorik; mentalitate hori edozein arlotara eramaten dut”

**Uztaila eta abuztua bitartean Nobull CrossFit Games jokoak izan ziren Madisonen (Wisconsin, AEB) eta, kirol egokitan, munduko kirolaririk onenen artean, Xabi Osa debarra bosgarren geratu zen bere kategorian (Men Upper Extremity -gizonak, goiko gorputz-adarra-). Orain asko ez dela, *Got Talent* telebistako saioan ere izan da bere onenak ematen. Besteak beste, snowboard-ean ere aritzen da Osa, 29 urteko gazte hau ez baita geldi egotekoa, berehala etsitzekoa ere ez. Hortaz eta beste hainbat kontuz aritu gara berarekin izandako solasaldian.**

**CrossFit egokitan zabilta. Kontaiguzu zer den.**

Kirol honetan CrossFit-ean egiten diren probak zailtasun fisikoa duten pertsonentzat egokitu dira. Kategoria desberdinak ditugu eta, beraz, besoa falta duten pertsoneri, itsuei, gurpil aukian dauden pertsoneri, eta abar egokitu egiten zaie WODa (eguneko entrenamendua).

**Noiz eta zergatik heldu zenion kirol honi?**

2018ko urtarrilean hasi nintzen. AEBetarik bueltatu eta Strongman-ean jarraitu nahi nuen hemen. Ez nuen gimnasiorik aurkitzen kirol horretan entrenatzeko, beraz, CrossFit-eko box (gimnasio) batean hasi nintzen nire kabuz entrenatzen. Entrenamenduak egiten nituen bitartean, klasean zegoen jendeak egiten zuena ikustean, harra sortu, eta horrela hartu nuen nire lehenengo klasea. Kirolak zailtasun berriak ekartzen zizkidan, eta horrek engantxatu egin ninduen.

**AEBetan jokatu diren Nobull CrossFit Games jokoetan hiru egunez lehiatu ostean, munduko bosgarren postuan geratu zara zure kategorian. Pozik?**

Oso. Txikitan ez naiz kirolaria izan. Ez nuen pentsatzen kirolarekin zerikusirik duen ezertan ona izango nintzenik. Ikusi dugu lan handia eginez gero munduko onenen artean egon gaitezkeela. Gogo handiarekin bueltatu gara gainera, eta lanean gabiltza hurrengo urtekoa prestatzen. Emaitza hori hobetzea espero dugu orain.

**Modalitate egokituan txapelketa gutxiago daude eta askotan urrun. Finantziarioa arazo izaten da?**

Neure kontu izaten da hori. Kamisetak atera genituen Games-etara joateko eta horri esker finantziarioaren zati handi bat lortu nuen. Orain badaude pixka bat laguntzen duten babesle batzuk, baina beti egongo da neuk ordaindu beharreko zatia. Ea hori aldatzen joaten den!

**Orain dela gutxi The Fittest Managers ordezkari-agen-**



**tzia fitxatu zaitu. Zer suposatu du horrek zuretzat?**

Estatu mailako CrossFit-eko kirolaririk onenak dauzkate, eta deitu zidatenean ez nuen sinesten. Ni ordezkariekin? Harriritua nengoen, benetan. Orain beraiek aritzen dira markekin negoziatzen lanak egiten; lan handia kentzen didate, eta horrela, gehiago zentratzen naiz entrenamenduetan.

**Egun Iurretako Anboto CrossFit box-aren jabekidea zara. Zer moduz doa?**

Oso pozik gaude. Kristoren giroa daukagu, oso pertsona onak daukagulako. Kirolak eman didan onena Anboton ezagutu dudana familia da.

**Nola uztartzen dituzu lana eta zeure entrenamenduak? Denbora asko ematen al duzu entrenatzen?**

Bi sesio egiten ditut egunero (ostegunetan izan ezik): bat bizpahiru ordukoa, eta bestea ordubetekoa. Box-ean egoten naizenez, erraz egiten zait, egia esan. Gainera, kideekin entrenatzeak bide honek ekartzen dituen garaipenak elkarrekin ospatzea dakar gero. Eta ospakizunak, horrela, bereziagoak dira.

**Elikadura eta atsedena ere zaindu beharko dituzu...**

Bai, eta niretzat hori izaten da zatirik zailena. Elikadura asko zaintzen dut, baina asko jan behar dudalako. Azkenaldian pisua irabazi nahian nabil, beraz asko jan behar

izaten dut, entrenamenduetan asko erretzen dudalako.

Atsedena zailagoa da box-a izanda: goiz irekitzen dugu, eta askotan ez naiz heltzen beharko nituzkeen atsedeen-ordu guztiak neuretzat hartzera.

#### **Eta alderdi psikologikoa lantzen al duzu? Nola?**

Bai, nire kabuz. Etxean eredu handia izan dut: aitaren jarduna egunero ikusteak asko lagundu dit neure burua lantzen, jabetzen helburuak lortzeko lana egin behar dela. Barne-borrokak ere izaten ditut egunero buruan, bai, baina azkenean ezarritako helburuak lortu nahi badituz argi dut ezin diedala pentsamendu negatiboekin kasurik egin.

#### **CrossFit-ean emakumeak zer presentzia du? Eta egokitu-tuan?**

Handia. Gainera oso ikusgarria da emakumeen lehia. Oso indartsu daude bai egokituan bai ez egokituan. Gainera diru-sariak berdinak izaten dira gizon eta emakumeentzat. CrossFit-ean oso presentzia handia dute emakumeek.

#### **Itxialdi-sasoian egin genizun elkarrizketan hainbat oztupo aipatu zenituen (hainbat lehia atzeratu izana, adibidez). Normaldu al da dena?**

Indartsuago itzuli gara. Ikasi genuen elkartasunaren bitartez aurrera egin daitekeela; guk bakarrik ezin ditugula erantzun guztiak aurkitu. Anbotoko kideei eta ideia berri askori esker aurrera egin dugu, eta inoiz baino indartsuago!

#### **Ba al da kirol honetan zuretzat eredugarri izan den norbait?**

Mat Fraser. Kirolean gauza izugarriak lortu ditu, baina, hala ere, daukan pentsamoldeak harritzen nau gehien. Txapeldun-mentalitatea dauka, dudarik gabe. Irabazteko behar den guztia egiteko prest egon da, eta horri esker CrossFit Games-etan bost aldiz atera da garaile jarraian.

#### **Eta erreferenterik bizitzan?**

Aita.

#### **Zer eman dizu CrossFit-ak?**

Erakutsi dit lana eginez gero ez dagoela ezinezkorik. Eta mentalitate hori edozein arlotara eramaten dut orain.

#### **Zer pentsatzen duzu zerbait "ezinezko" delako entzuten duzunean?**


Nire ezinezkoetan. Zenbat aldiz pentsatu dudan ezinezko zirela hainbat gauza, baina neure buruak eta pertsona batzuen ereduak erakutsi didate borondatea dagoen lekuan ez dagoela ezinezkorik.

#### **Aholkuren bat emango zenioke norbaiti? Zein?**

Ez fijatu ez duzun gauzetan. Ikusi zer den daukazuna, egokitu horretara, eta beti aurrera!

#### **Beijing 2022; zure erronken artean akaso?**

Snowboard-arekin hasi nintzen, baina CrossFit-ak gehiago eskatzen dit momentu honetan eta CrossFit-a ez da federaturiko kirol bat eta ez dago paralinpikoetan. Hala ere, paralinpikoak? Inoiz ez inoiz esan.



# Aurten baDa azoka

Abenduaren 3tik 8ra egingo da Durangoko Azokaren 56. edizioa; aurrez aurreko 220 stand eta online denda uztartuko ditu, 'baDA!' lelopean. Leire Urbeltz sortzaile iruindarrak egin du aurtengo kartela, 'Desipuindegia' izenburupean. Urbeltzek Azokako lehenengo edizioak izan ditu gogoan, garai horretako irudien *revivalismoa* eginez.



## || Aurten Azokarik bada?

Askok egin digute galdera.

Bai noski, baDA!", iragarri du Gerediagako presidente Nerea Mujikak Durangoko Landakogunean egindako prentsaurrekoan. Bertan jakinarazi duenez, aurten, azoka presentziala eta digitala izango da; 220 erakusmahai baino gehiago egongo dira aurrez aurre abenduaren 4tik 8ra, eta online denda martxan egongo da abenduaren 3tik 7ra *durangokoazoka.eus* webgunean.

Mujikak azpimarratu duenez, edizio honetan "itzuliko dira erakusmahaiak, itzuliko dira korridoreak, Ahotsenea, Irudienea, Kabi@, Sagunganbara eta Szenatokia, eta itzuliko dira sortzaileak, argialetxeak, diskoetxeak, zein autokoizleak; eta, nola ez, kulturzaleak. Beraz, bada Azoka. Eta zelako Azoka!".



## 50 kontzertu Plateruengan

Kontzertuei dagokienez, antolakuntzak iragarri berri du Ahotsenean 50 kontzertu eskainiko dituztela eta emaldi guztiak Plateruengan izango direla, 11.00etatik 22.00etara bitartean. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztatik izena ematea. Horrekin batera, jakinarazi dute Ahotseneako zuzenekoak zein Azokako Aretoko Nagusiko ekitaldiak

webgunean ere jarraitu ahal izango direla *streaming* bidez.

Musika ez ezik, Durangoko Azokak diziplina askotariko egitaraua berreskuratuko du aurten: solasaldiak, proiektzioak, arte eszenikoak, umeentzako ikuskizunak, ekitaldiak... Dena den, egitarau osoa azaroaren 22an aurkeztuko da.

Debarrenetako Komunikazio Taldeak (DKT) jasotako informazioaren arabera, aurten, bailarako idazle, musikari eta argialetxeek ondutako 23 liburu eta disko baino gehiago izango dira azokan; tartean, eleberrak, poema liburuak, album ilustratu bat, itzulpenak, eta baita rock, folk eta jazz diskoak ere. Ondoko orrialdean dituzu horietako zenbait ale.

DKT: Drogeteniturri (Ermua, Mallabia), ...eta kitto! (Eibar), Pil-pilean (Soraluze), Barren (Elgoibar, Mendara) eta Berriketan (Deba).

# DEBABARRENEKO UZTA

## DEBA-ITZIAR

- ♦ **Nerea Loiola Pikaza:** *Epizentropa* (Erein argitaletxea).  
Liburuaren aurkezpena: Abenduak 4 (larunbata), 17:00etan, azokan bertan.
- ♦ **Goizane Aizpurua Ibañez:** *Izarak* (Alberdania argitaletxea).
- ♦ **Iñigo Lopez Simon:** *Bilboko etxola batean* (Elkar argitaletxea). Debako Udalak eta Elkarrek antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da liburua.
- ♦ **McOnak taldea:** *Bitakora* (Mauka Musikagintza).  
Abenduaren 6an Ahotsenea gunean (Plateruena) kontzertua.
- ♦ **Huntza taldea:** *Ezin ezer espero* (Mauka Musikagintza).

## EIBAR

- ♦ **Su Ta Gar:** *Sua komikia* (Alex Tello eta Julen Ribas).
- ♦ **Ibon Muñoa:** *Gure Ama-Lur feminista da* (Ataramiñe)
- ♦ **Bixente Martinez:** *Txoriak buruan eta ibili munduan*. Abenduaren 6an, Ahotsenean.

## ELGOIBAR


- ♦ **Jasone Osoro:** *Asteburu bat eskiatzen* (Goazen saila, Alai), *New York, New York!* (Goazen saila, Alai) eta *Festa* (Elkar).
- ♦ **Uxue Alberdi:** *HILI, album ilustratua* (Elkar).
- ♦ **Danele Sarriugarte:** *Walden* (Henry David Thoreau autorearen lanaren itzulpena, Katakarak) eta *Kapitalaren lan-tegi ezkutua* (Nancy Fraser filosofo estatubatuarren lanaren itzulpena, beste hiru itzultzaileekin elkarlanean, Susa).
- ♦ **Ander Mujika:** *Orain entzungo duzun hau* (Bidehuts). Anariren diskoan kolaboratu du.

## ERMUA + MALLABIA

- ♦ **Txabi Arnal:** *Berta Berezi* (Erein argitaletxea) eta *Tatxani handiaren azken trukoa* (Elkar argitaletxea).

## SORALUZE

- ♦ **Ansorena & Senperena:** *Euskal Danbolinaren Aroak* (Gaztelupeko Hotsak).
- ♦ **Gorka Gaztanbide:** *Txikizio kuadrilla* (Gaztelupeko Hotsak).
- ♦ **Juan De Diego:** *Grebalariak* (Errabal Jazz).
- ♦ **Noa Lur, Ander Garcia:** *Gaur* (Errabal Jazz).
- ♦ **Aldapeko Basque Latin jazz:** *Iri barrenetik* (Errabal Jazz).
- ♦ **Plana, Forts, Viñolas:** *Nucli Trio* (Errabal Jazz).
- ♦ **Jon Urrutia:** *Piano Solo* (Errabal Jazz).



## “Haurren aurrean, helduak heldu” kanpaina bultzatuko du Apakinek Deban

**Apakin guraso taldeak haurren aurrean helduen eredu-garritasuna sustatu eta hizkuntza praktiken inguruan hausnartzeko ekimena bultzatuko du. Haurrekin**

**harreman zuzena duten helduen hizkuntza praktike-tan eragin eta euskara gehiago erabiltzeko deia egingo da azaroaren 22tik abenduaren 5a artean.**

Euskal Herri osoko 80 herri baino gehiagotan egingo da “Haurren aurrean, helduak heldu” ekimena, tokian tokiko batzorde edota eragileek bultzatuta. Euskaltzaleen Topaguneak koordinatu du helduei zuzendutako ariketa praktiko hau, *Euskarak 365 egun* lan ildoaren baitan. Eta geurean, Deban, Apakin guraso taldeak bultzatuko du.

Ariketa praktikoa izango da, azaroaren 22an hasi eta abenduaren 5ean amaituko dena. Ekimen honen helburua da guraso, hezitzaile, lagun heldu, zaintzaile eta umeekin egoten diren bestelako senideek euren arteko -hau da, helduen arteko- hizkuntza-praktikak aldatzea eta euskara gehiago erabiltzea.

### Hizkuntza-praktikak aldatzeko bidea egiten jarraitu

“Euskaldian sustatzen diren portaerak sozializatzen jarraitu nahi dugu ekimen honekin, eta portaera linguistiko horiek herritarren praktketan integratzen, arau sozial bihur daitezten”, nabarmendu dute Apakin taldeko kideek. Alegia, hizkuntza-praktikak aldatzeko bidea egiten jarraitzea da helburua. Bide horretan, “euskaldunok euskaldunokin euskaraz egiten dugu” arau soziala indartu nahi du ariketak: solaskideek, euskara dakiten kasuetan, euskaraz egiten; lehen hitzak euskaraz egiten; eta kideak ulertu bai baina euskaraz hitz egiten ez badu ere, euskarari eusten (baita elkarriketa elebidunetan ere).

“Erabilera sozialaren eredurik ez badago, haurrek hizkuntza ikasi bai, baina ez dute jardungo -gogorarazi dute-. Euskara egoera eta testuinguru guztietan ohikoa dela sumatu behar dute



haur eta gaztetxoek, etorkizunean beraiek ere hala jokatzeko nahi badugu”. “Haurrei eskatzen zaie euskaraz egiteko, baina gero helduok ez badugu hala jokatzeko, gaztetxoek mezu kontraesanak jasotzen dituzte; haurrek hizkuntza ez ezik, hizkuntza erabiltzeko gizarte-arauak ere barneratzen baitituzte, hau da, norekin bai, norekin ez; noiz bai, noiz ez...”, azaldu du.

Parte-hartzaileei eskatuko diete pentsa dezaten norekin alda ditzaketen hizkuntza ohiturak parkean, eskola inguruan edo umeekin egiten dituzten bestelako ekintzetan; baita kide horiei elkarrekin ariketa egitea proposatzea ere.



Berokuntza



Etxetresna elektrikoak



Ingurutzaila termikoa



Argiztapena



Eguzki-energia fotovoltaikoa



Eguzki-energia termikoa



Aeroterminia



Biomasa



Geoterminia



Faktura elektrikoak



Energia bulego birtuala  
[energia.debegesa.eus](http://energia.debegesa.eus)



# Badator "Euskeraz Bagera", hizkuntza ardatz harturik hamaika ekimen jasotzen dituen egitaraua



Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Zuhatza Euskara Elkartek eta herriko hainbat eragilek elkarlanean, euskararen erabilera sustatzea helburu, hamaika egunean zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Abenduaren 1ean hasi eta abenduaren 12ra arte kultura, kirola eta aisialdiko zenbait eskaintza izango dira herrian aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izateko eta herritarren artean euskal harreman-sare berriak eraiki ahal izateko.

Programazioari ekiteko, abenduaren 1ean, asteazkena, "Debako hizkera noiz eta nola" hitzaldia izango da Jesus Mari Makazaga euskal filologo eta EHUko irakaslearen eskutik, 18:30ean. Ostegunean, hilak 2, "Mintzodromoa" eta luntxa izango dira Agirre Jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan. Bertan, adin guztietako herritarrek gai desberdinez solasaldian aritzeko aukera izango dute. Euskararen Egunean, abenduak 3, ostirala, goizez, Zuhatzak



eta Mendata ikastetxeak elkarlanean antolatzen duten literatur txapelketako sari-banaketa izango da Mendatan. Arratsaldez, berriz, 19:30ean, Kanean Kantuz taldea arituko da kalez kale giroa alaituz, musika eskolatik abiatuta; horrekin batera, Zuhatza Euskara Elkartek material salmentarako postua jarriko du plazan "Egin zaitez Zuhatzakide" lemarekin eta apustu berezi bat ere egingo dute. Larunbatean, hilak 4, arratsaldez, 19:00etan, Euskaraokea izango dute gaztetxoek Gaztelekuan, euskaraz kantuan aritzeko aukerarekin.



Abenduaren 5ean, igandea, arratsaldez, *Ilargi guztiak* filma proiektatuko da Kultur Elkartean, gaztelaniazko azpiti-tuluekin. Ostiralean, abenduak 10, iluntzeko 20:00etan, jazz kontzertua izango da Kultur Elkarteko aretoan, KulturEkin programaren baitan, Xahu taldearen eskutik. Larunbatean,



hilak 11, goizez "MintzaCapoeira" eta "MintzaSurf" saioak izango dira, horietan euskaraz jardunez capoeira eta surfa ikasteko aukera izango da. "MintzaCapoeira" familian egiteko saioa izango da, eta Ikigai zentroan emango da, 11:00etan; MintzaSurf, aldiz, 16 urtez gorakoei zuzenduta egongo da eta Zurrunbiloren lokaletik abiatuko da, 11:00etan. Egun berean, arratsaldez, 16:00etan, Amaiak Bat herriko futbol taldeak, Euskararen Egunari keinu eginenez, partidaren atsedenaldietan "Erronka: euskararen aldeko gola" ekintza egingo du Errota Zarren (abenduaren 18ko partidaren ere ekimena errepikatuko da). Iluntzean, berriz, kontzertua izango da Gaztetxean.

Azkenik, abenduaren 12an, igandea, goizez, herritarrek ipuin-kontalarien emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute Kultur Elkarteko liburutegian. Debako kontalariak eskainiko dute saioa.



Azkenik, abenduaren 12an, igandea, goizez, herritarrek ipuin-kontalarien emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute Kultur Elkarteko liburutegian. Debako kontalariak eskainiko dute saioa.



## DEBA HORTZ KLINIKA



Hondartza kalea, 20 behea - 20820 - Deba  
Tel. 943 19 28 19 | [info@debaklinika.com](mailto:info@debaklinika.com)

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (ikusezina)  
Haurren odontologia

\*Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • [inmolhome@gmail.com](mailto:inmolhome@gmail.com)

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ  
Abokatu eta ekonomialari elkartuak  
Zerbitzu juridikoak  
670 411 444  
[centrolegal@sgobogados.eus](mailto:centrolegal@sgobogados.eus)

## Mintzalagun taldeak martxan dira berriz

Azken hilabeteotan hasi dira biltzen Debako mintzalagun taldeak. Aurreko urteetako dinamika mantenduz, urrian zabaldu zen egitasmoan izena emateko epea eta momentuz hiru talde daude martxan: lehenengoa astelehenetan 15:00etan elkartzen da, bigarrena ostegunetan 17:45ean, eta hirugarrena ostiralean 11:00etan. Dena dela, oraindik ere egin daiteke bat egitasmoarekin; izen-ematea doakoa da eta ikasturte osoan dago irekita. Zuhatza elkarteak kudeatzen du programa, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean.

Astean behin ordubetez elkartzen dira taldeak paseoan, kafetegian, parkean... aisialdian euskaraz aritzeko.

Parte hartu nahi dutenek Zuhatza Euskara Elkartearen bulegora jo behar du. Deitu 943 19 13 83 telefonora, idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera edo bete izen-emate fitxa [labur.eus/Zuhatza\\_Deba](http://labur.eus/Zuhatza_Deba) helbidean.

## Kolore Anitz Aisialdi Taldea gustura hilaren 13ak emandakoarekin



Kolore Anitz Aisialdi Taldeko begira-leak gustura agertu dira azaroaren 13rako prestatutako egitarauak herrian izandako harrerarekin. "Izugarrria izan da azkenean Kolore Anitz Eguna zuekin bizi ahal izatea, besoak zabalik hartu gaituzue, zuen eginbeharrak alde batera utzita, azaroaren 13a, gure eguna, zuen egun egiteko", adierazi dute.

Taldearen esanetan, goizean zehar egindako ekintzek "izugarritzko arrakasta" izan zuten, "eta Gaztetxeko kontzertuari ere gogor ekin zion Debako eta

inguruko herrietako gazteriak".

"Mila esker, kolore-familia, beste behin ere zuen inplikazio maila inoiz baino altuagoa dela adieraztearren -gaineratu du-. Eskerrak, era berean, Amildegia taldeari, bere musikaz Debako Gaztetxean izugarritzko mugimendua sortzearren, eta Kolore Anitz Aisialdi Taldeari eta Zuhatza Elkarteari babesa erakustearren".

Taldea laster izango omen da berri gehiagorekin; "bitartean, segi zuen eta gure bizitza kolorez betetzen!".

## Errigorako saskiak azaroaren 24an jaso ditzakete zuhatzakideek



Azaroaren 24rako (asteazkena) prest izango dituzte Zuhatza elkarteako bazkideek aurtengo Errigoraren kanpainan erosi dituzten saskiak. Elkarteako bulegoan (Ifar kalean) jaso behar duzuten eskaerak, 9:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Bertaratzeko arazorik izanez gero, 943 19 13 83 edo 688 840 308 zenbakietara deitu dezakete. *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* lemapean, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuez osatutako saskiak banatuko dira, eta bertako euskalgintzari ekarpen ekonomikoa (saskien balioaren % 25) egingo zaio.

### ITURLAN, S.L. Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfnoa - Fax: 943 192 553  
[fontaneriaiturlan@iturlan.com](mailto:fontaneriaiturlan@iturlan.com)



### ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

#### OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

#### ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



### Blues Hotsak

[www.blueshotsak.eus](http://www.blueshotsak.eus)

SORALUZE-GIPUZKOA  
HERRIKO ANTZOKIA  
2021 Azaroa 19-28

VIERNES 19 OSTIRALA 20:00

WATERMELON  
(U.S.A.) SLIM

20:00 SÁBADO 20 LARUNBATA

IZO  
(U.K.) FITZROY

DOMINGO 21 IGANDEA 20:00

EUNICE vs (MADRID/GASTEIZ)  
MAYKA EDJOLE

OSTEGUNA 25 JUEVES 21:00 FILMA

JANIS: LITTLE GIRL BLUE

20:00 VIERNES 26 OSTIRALA

NIKO ETXART  
(E.H.) & HAPA HAPA

SÁBADO 27 LARUNBATA 20:00

KOKO-JEAN  
(BARCELONA) & THE TONICS

Sarrerak

SORALUZEKO IRATXO  
GOZO-DENDAN SALGAI

DOMINGO 28 IGANDEA 13:00

MUSIKA ESKOLAKO KONBOAK

ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO  
BAZKIDEEN ARTEAN

BOST SARRERA BIKOITZ  
ZOKKETATUKO DIRA



# EUSKERAZ BAGERA!

## ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



### JUANMA OIARTZABAL

58 urte

Gogoan ditut lehen urte haiek: zortzi bat lagun biltzen ginen Deban euskara elkarte bat nola sortu hausnartzeko, euskara eta euskal kultura suspertzea helburu. Hainbat herritako euskaltzaleekin bildu ginen, baita sortze-bidean zebiltzan inguruko elkarteekin ere, eta denen laguntzarekin aurrera egin genuen. Egindako ibilbideari begira jarrita konturatzen naiz harro egoteko moduko pausoak eman genituela (1997 bueltan), eta apaltasunetik hazia landatu genuela herrian gure hizkuntza eta kultura suspertzeko. Egoera berriak etorriko dira eta, beti aurrera begira, indar berriak gehitzen joango gara.

### LEIRE AGIRREBEÑA

40 urte

Maite dudan eta gure herriko hizkuntza den euskararen egoera normalizatzeko lanean bultzada garrantzitsua ematen duelako Zuhatza Euskara Elkarteak. Kolore Anitzekin euskaraz ondo pasatzen dela ikusten dute bai haur eta bai gurasoek; *Berriketan* gustura irakurtzen dugu, Euskal Jaian sortzen den giroa ederra izaten da, Olentzeroren kalejira eta abar ere bai. Zuhatza elkarterik gabe Deba eta euskal mugimendua umezurtz geldituko lirateke.



### IGOR PRIETO

44 urte

Nire bizitza bere osotasunean euskaraz bizi dut: familian, lagunartean, lanean, kalean... Eta Zuhatza Euskara Elkarte bidelagun dugu aipatzen dudan horretan. Hizkuntza kultura bateko zatirik garrantzitsuena izanik, elkarteak geurea den euskara helarazten digu, besteak beste, herriko berriak hileroko ale kuttunaren bitartez zabalduz. Urte askoan horrela izan dadila!

### NORA MUGARZA

29 urte

Batetik, zenbait kultur eragiletako kide naizen aldetik, *Berriketan*-ek beti eskaini izan digulako txoko bat nahi genuen hori zabaltzeko; bestetik, herritarren proiektu eta ikusmoldeak ezagutzeko leiho ederra delako. Horrez gain, euskara eta euskal kulturaren zaindaria eta hauspo ere bada Zuhatza. Batzuetan, iruditzen zaigu beti ezagutu dugun hori berez dagoela hor, baina ez; Mendatako prentsa tailerra, *Berriketan Gaztea*, Kolore Anitz, Euskal Jaia, edo herriko beste hainbat jaialdi ere, ez leudeke hor atzetik ilusio eta konbentzimenduz elkarlanean ari direnei esker ez balitz. Beraz, mila esker Zuhatza!



**AZAROAK 20, LARUNBATA**

-15:00. **Bazkaria:** Debako Gazte Asanbladako kide eta kide ohien babajana Gaztetxean.

**AZAROAK 21, IGANDEA**

-11:00. **Capoeira familiar\***

-12:00. **Roda\***

-14:00. **Feijoada solidarioa\***

(\*Hiru ekimenak Capoeira Solidarioaren baitan egingo dira. Izena emateko: 637552948).

-18:00. **"Luze edo Motz" emanaldia** (helduentzako), Itziarren, Burugorri eraikinean.

**AZAROAK 22, ASTELEHENA**

-7:00. **Santa Zezilia Eguneko diana**, Musika Bandaren eskutik.

-8:30. **Txistulari eta soinu-joleak** kalez kale.

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

**AZAROAK 24, ASTEAZKENA**

-Errigorako saskien banaketa, Zuhatzaren bulegoan (9:30-13:30 / 18:00-20:00).

-18:30. **Dokumentala/solasaldia:** "Malen Etxea. Zaintzaren esklabu", Kultur Elkartearen.

-19:00. **Irakurketa kluba**, "Epizentroa" (Nerea Loiola), Ostolaza liburutegian.

**AZAROAK 25, OSTEGUNA**

-17:00. Musika ikasleen merendola eta kalejira.

-18:00. **Emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontzentrazioa**, Foruen Plazan.

-18:30. **Gaita taldea** kalez kale.

**AZAROAK 26, OSTIRALA**

-17:00. **Ipuin-kontaketa**. Emakumeenganako indarkeriaz, Debako Kontalariak, Gaztetxean.

19:00. **Sari-banaketa:** "Beldur Barik topaketa 2021", Agirre jauregiko Ispiluen gelan.

**AZAROAK 27, LARUNBATA**

-12:30. **Santa Zezilia omenezko kontzertua**, elizako klaustroan.

-19:00. **Elektropoteoa** Ttek taldearekin, Plaza Zaharretik abiatuta.

-22:30. **Kontzertuak** Gaztetxean: Debrass Band eta Bassque Reggae Kultur.

**ABENDUAK 1ETIK 12RA**

-**"Euskeraz bagera"** ekimena (informazio gehiago aldizkari honen 15. orrialdean).

**ABENDUAK 13, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

**ABENDUAK 15, ASTEAZKENA**

-19:00. **Irakurketa kluba**, "Nobela errealista bat" (Joxean Agirre), Ostolaza liburutegian.

**Miquel Saumell Osta gogoan**

-Azaroaren 27an (12:00-14:00 / 18:00-20:30) eta 28an (12:00-14:00 / 17:00-18:30) Miquel Saumell Osta artistaren lanekin osatutako erakusketa izango da Kultur Elkartearen. Horrez gain, azaroaren 28an, 13:00etan, haren taldekide izandakoan musika emanaldia izango da.

**Dagigun partaidetza gunearen tailerrak**

-Azaroaren 20, 21, 27 eta 28an, etorkizuneko Deba eraikitzeke helburuarekin, Dagigun partaidetza gunearen tailerrak egingo dira zumardian. Horietako bat familia eta haurrekin egingo da. Debako Udalak herritarrek horietan parte hartzera gonbidatu nahi ditu. Informazio gehiago: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

**Lehiaketak**

-Euskararen Eguneko **Euskaraz izango gara** lehiaketa egingo du Danobatgroup-ek. Informazioa: <https://info.danobatgroup.com/euskara/Lehiaketa-2021.html>.

-Tene Mujika XVI. bekarako deialdia zabalik dago. Abenduaren 9ra arte bidal daitezke lanak. Oinarriak: [www.deba.eus](http://www.deba.eus) atarian.

**...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri**

**AZAROAK 19TIK 28RA**

**Soraluze**

-Blues Hotsak jaialdia. Musika kontzertuak, dokumental emanaldia, erakusketa... Informazioa: [www.blueshotsak.eus](http://www.blueshotsak.eus).

**AZAROAK 20, LARUNBATA**

**Elgoibar**

-11:00. **Karakateko igoera** (irteera Kalegoen plazatik), Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta. Informazioa: [www.morkaiko.eus](http://www.morkaiko.eus).

**AZAROAK 30, ASTEARTEA**

**Eibar**

-9:00-15:00. **San Andres nekazal eta ganaduzakoa**. Postuak Txaltxa Zelai, Untzaga eta Toribio Etxebarrian egingo dira ikusgai.

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abenduak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 19, 20, 21, 29, 30. abenduak 1, 2, 17, 18, 19.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**

**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 4 eta 11

BURGOA ZUAZO: azaroak 20 eta 27 / abenduak 18

**9:30 - 13:00**



RPS:183/12

**PILARIK GABEKO AUDIFONOAK PROBATU HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

LIZ.-ZK.: 3

**TaxiAlain Deba**

Wi Fi

[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus



**ieraenea**  
ekodenda

"maite ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

**k**

**kutxabank**



Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretakeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faka: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**ASESORIA DEBA**

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**adats**

**ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA**  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

**ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU**  
Behoko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45

 [www.facebook.com/adatsileak](http://www.facebook.com/adatsileak)  
 @adatsileak



[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)




ekodenda,  
dieta, dietika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [sasoiiko@hotmail.com](mailto:sasoiiko@hotmail.com)



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

# DOITASUNA MEKANIZAZIOAN; KONPROMISOA KOMUNITATEAN

Zehaztasun handiko mekanizazioan erreferente izateaz gain, Goimekek inguruarekiko konpromiso estua ere badauka. Besteak beste, ongizatea eta osasuna, garapenerako kooperazioa, gizarte-inklusioa, ingurumena, hezkuntza, kirola, euskara eta kultura-ekimenak sustatzen ditu instalakuntzak dituen ingurune gertuan.